

MAITETASUN ERRUKITSUAREN ALBISTEA

P. M. SULAMITIS.

ESPAÑA'KO KATOLIKOAI

BERGARA'N

"LA TIPOGRÁFICA, S. L."

1932


ATV

18.915



Jaungoikuak gizadiya asko maite ebalako, Bere Seme bakarra eurakana bialdu eban, berari sinistuten eutse-nak galdu etzeitezan eta betiko bizi-tzea izan eiyen.

(Joan. III, 16.)



España'ko katoliko'ai ⁽¹⁾

Españaren alde otoi egitea.
Esturaldien premiñea.

...Bai; Nik ondo maite dodan lur-alde orren (Españaren) alde erregu egitea premiñaskua da. Lurralde orrek bere agintari nagusien bidez emon izan ditu, era askotara, Niganako leialtasunaren ezaugarriak, eta beste erridi batzuei bere erakutsi ona eta orretarako adore aundiya ezarri deutsez.

Baña lurrian utsune bagako gauzarik ez dago. ¿Ez ete dira neuk ezanak itz onek?: «Nire masteyan matz adar asko iñausiteko premiñea dago».

Orixe da ba egiten dodana esturaldien

(1) P. M. Sulamitis'eri era onetan Españaren alde Maitetasun Errukitsuari erregutu al izateko, eskarien bat asmau eta imiñi eiela otu jakeuen batsuk izan ziran.

Baña gogo onen barririk aregana bialdu baño lenago, ta berari Españan jaso ziranak iñungo gizonandik jakin baño len, Maitetasun Errukitsuak bialdu euzkun *Albista* au, aren esku txikitxoan bitartez, nun ixentetan jakun zeintzuk izango jakozan geure sorterri maitiaren alde errukia jarizteko eskaririk gogokoenak.

Ezakeraren batsuk bear diran lez adituteko goguan euki bear da P. M. Sulamitis estala España'koa ta bizi bere estala Españan.

bitartez; indar egiten deutzet neure ari-mai, fede geiyagogaz, icharopen geiyagogaz eta goi-maitasun geiagogaz neuganunts biurtu daitezana, orretarako bialduten deutzedazan era askoren bidez.

Nik ez ditut gauzak aituten munduak aituten dituan erara. On aundiyaguak billatu oi ditut; eta Neurien artetik, neure aintza eta ixen ona beti lortuten dot.

¡Ay! Nire argiyakaz ikusiko bazendukez gauza gustiyak, beste ants bat eukiko leuke, eta orduan beste abegi bategaz artukozendukez Nire erabagiyak.

Onegaz ez dot ezan nai jasoten diran gauzak etzaituela mimberatuko; eta orri-xegaitk daukat ezanda: «Eskatu egizue», baña oraindiño ez dozue ezer eskatu. Asko dagoenian gitxi eskatu oi da.

Bai; Neuk ezana da: «Eskatu egizue eta emongo yatsue; billatu egizue ta aurkituko dozue; deitu egizue ta edekiko yatzue». Neuk ezana au bere: «Nire Aitak, Nire ixenian eskatuten deutzezuen gustiya emongo deutsue...». Zeruak eta lurrak uts emongo dabe, baña Nire ezanak beteko dira, ez dabe iñoiz utsik emongo. Zeuen fedearen neurriyan emongo yatzue. Zuek, gaiztuak izanda bere, zeuen seme-alabari gauza onak emon oi badeutzazuez, ¿Zeruko Aitak zelan ez deutsuez zueri emongo? ¿Arek emongo ete deutse ba, lupuen bat, ogiya eskatzen dagozan umetxoari?

Alan da guzti bere Neuk ezana da, asko igaro biarko dozuela Neure ixenian, ez nintzalako Ni etorri munduak aituten daben erara bakia ekarten.

¿Nire adizkideen leyaltasuna eta adore aundia noiz agertu ete leike obetuago, aínbeste nazteketa eta kaltegarritzko gauza ikusten dan aldi onetan baño? Gomutau egizue zelango bizimodua eruan neban Nik lurrian bizi izan nintzan artian, eta zelangua eruan eben Nire Eleiziak, Nire Ikasla edo Apostoluak eta Nire adizkide gustiak.

¡Etzaiteze ba ikaratu larregi! Irakurri egizue, sarritan, Nik Ebangelioan diñodana; eta atsekabe ta larritasunak datozenian, zurbildu barik poztu zaiteze... Itxaron egizue... Mundua azpiratuta daukat; Munduari eta eriotzeari geiyago eginda nago; Nigaz leyalak bazare, zeuk bere, Neugaz batera, garaibari urtengo dozue, garaitza orren sari ona emongo deutzuet, eta atsekabe guzti orren gañetiko neurriyan biotzeko poztasuna izango dozue.

Olantxe egin biarrian nago zuekaz, zuen onerako, bestela guzurrezko bake orretan lo egingo zenduke, eta beste guztiak astrapaba eta naibageen artian dagozan bitartean, zuek icharopen ta uste betia zeuen indarrian eukirik, ardura baga egongo ziñake; eta gauza ori zuentzako oso kaltegarriya izango litzake. Santuak esturaldi

eta atzekabeen artian sortu oi dira. Zeuen itxaropena Neugan imiñi egizue.

Zelan erregutu bear dogun.

Nor edo nortzuk nai izango eben, eurak Neure Biotzaren alde eta Neure Maitetasun Errukitsuaren alde egin dituezan lan onak ondo agertu ta ixentauko ziran erara erregu au egin zeitela.

Orreri esan egiyezu, Ebangeliotik daki-xuen legez, Nire Biotz barruraño elduten dan erregurik ederrena, auxe Neure Maitetasun Errukitsua bere gañera ixuri zanaren agotik urten eban au dala: «Jauna, ni pekatari aundiya naz eta euki egizu nire errukiya».

Iñoiz bere ez egizue Fariseo'aren antzeko otoirik egin...

Bestiak baño obiagotzat agertu nai izatia, eta len egin ziran lan onak barruan itxi oi daroen abaitasun arrua, arimako orbanak dira, eta eurak dira. Nire grazia-
ren emoya eta Jaungoicozko barru-ikara onak galerazoten dituezan eragozpenak.

Badaukadaz nik egiyaz beeratuak (umillak) diran arimak, eta orrixek dira nire graziyak lortuko dituezenak.

Izan dira, eta orain bere badira; Neure ixenian gogotsu oparitzat eskiñita dagozenak. Jarraitu egizue biotz-beerak (umillak) izaten; etzaitze iñoren barruko asmuak

igarten ibilli; iñor ez egizue txartzat bota; aituten ez dozuen gauzan etzaiteze sartu; zeuen burutiko eretxiyak zeuen inguruan ereiten etzaiteze ibilli, orrek guztiok oso kaltegarriak diralako, eta eurak Nire esker edo graziya guztiak atzeratuteko laña diralako.

Zeuek biar dan legez ete zabilzen begiratu biar dozue: Otoitz egizue... aspertu barik erregutu egizue, Neuk erakutzi deutsuedazan eskariyakaz. Antxe dago gusti-ya. Orrek pozik emoten ezbadetsue, jakin egizue ez dozuela ondo aitu ta ulertu eskari orrek zer diran.

Edozein bear-izan edo premiñetan «Aita gurea» ezan egizu: *Ave Maria* ezanagaz Ama Birjiñeari dei egiozue; aren ondoren *Gloria Patri...* bere ezan egizue, beragaz nire aintza ta gloriya goralduten da ta.

Gañerakuan bere Neuk ezandako itzakaz erregurik onenak egingo dozuez. Azko poztuten nau ikusteak zuek orretaraxe eskatuten dozuezela nire doe ta laguntazunak...

Batez bere gomutau zaiteze Nire Maitetasun Errukitsuak garailari urten eziñik iñoiz bere ezdaukala.

Maitetasun orrek zuen arimetan iraun daiyala beti. Maitetasun orretan siñistu egizue eta jarraitu Nire aurrian beeratuak eta ixillak izaten, bere ondorengoak artuteko duin izan zaitezen; ori baga Nire Mai-

tetasun Errukitsuaren ondasunetan ez dozue zatirik izango, eurak beartsu eta ezeukiari emoteko bakar-bakarrik diralako. Ez-eukiak ondasunez beteko dira, eta aberatzak ezer baga, esku utsian aurkituko dira, biotz beeratasunak oso atzeginduten nabelako.

Ara emen zuek aditu ezin dozuen ikasbide bat; zuek ugaritasunean, aberaztasunean eta aukera guztien artean, igirian lez, bizi al izatea nai zenduke.

Nire borondatearen eskuetan osoro jarterik bere ez dozue nai: Nigaz gañera beste laguntasunen bat badaucazue, orduantxe biar bada, Nire borondatera menderatuten zare; baña ori ez da Ni goralduta poztuten naberen mendetasuna; Nik nai dodana auxe da: zuen inguru guztiak lurra jo eta galdu enean aurkitzen badira bere, Neugan eta nire Ama guztiz Santeagan imiñi dagizuela zeuen uste ta itxaropen osoa.

Nai dot aldi onetan zeuen sorterriaren alde eskari asko egin daidazuela. Nai dot, guztiok bat egin zaitezela...

Erridi edo naziño onetan egitekotzat daukadazan gauza gustiak gaitik eta zeuen barru aldakuntzearen bidez goraldua izan naiten, etxe onetakoak erregu ugariyak egiten neuk jarriko zaituet.

Biotz beeratasuna ta itxaropena.

Zintzoak izan zaitezze eta itxaron Neugan: etzaituet bakarrik itxiko, eta zuen artean izan dodan arrera eta ostatu ona, eta zuek nire omenian egin dozuezan lan onak inoiz bere ez dira astuta geratuko. Nik es ditut beinbere astuko, eta eurak izango dira beti zuen ixen-onik aundiena.

Biotz beratasunaren alde jarri nai dot: gaurko egunian alde gustietan sartu da aundiuste edo arrokeriarako poza, eta orixe zapaldu nai dot Nik, danak ezagutu daiyen Neu nazala zuen Salbatzallea eta neure ontasunak bakarrik emon leikela zuen ondoizatea.

Bestelakuan zuek neure onegiñak bere etzendukez aintzat artuko.

Nik amaigabeko amodioagaz maite zaituet: Neu naz bakotxaren Salbatzallea; baita erridi, naziño eta gizadi guztiena bere, eta alan beti esan bearko da, dandnok Neure Maitetasun ta errukiyaren egikera batzuk baño etzarela.

Barriro bere auxe diñautsuet; datorrena datorrela ez dagizuela itxaropena galdu. Zeru-lurrak ondatu bearrean aurkituko balira bere, emen nago Ni, zeuen Salbatzallea; ez egizue zeuen arimetako bakea galdu. Gomutau egizue Ebangelio'au esanda daukadana: *Atzekabeturik eta makalduta zagozenok erdue Neugana, Neuk poz-*

tuko zaituet. Neugaz maitetatunean zagozen artean, zeukaz egongo naz betiraun (eternidade) guztian bere. Jaungoiko-maitetasuna, orixe da Nire Legeko agindurik naguziyena.

Neu naz zuen egiazko Erregea, inoz bere aldenduten ez dan Erregea; bere agintari-jarlekutik (tronotik) inok jaurtin ez leiken Erregea. Beste gustiak dindilizka ezjausiko-baijausiko ikusiko dozuez, baña betiko Erregeak beti iraungo dau: arerio guztiak zapalduko ditu, eta bere laguntzat aututa zintzo erantsun deutesenak, Beragaz Bere erreñuan, lur onetako erreñu amai-korrakaz, gizonak aldatuten dijan legez aldatu oi diran erreñuakaz zer ikusirik bere ez daukan Erreñuan agintari izango dira.

Badakit zer egiten dodan, eta diñautsuedana egiya da. Egi onek ez egizuez zeuen gurarien erara artu, ordua baño len: Neure argiyagaz guztiya ondo adituko dozuen eguna elduko da, eta orduan artuko dozuez indar barriyak eta Jaungoikozko adore aundiya. Orain bear dozuena da neure neurri bagako alizatea ondo ezagutu, eta neure ontasunean uste guztia jarri, eta au egiazko biotz-beeratazunagaz, azaletik eta barrutik errukizko maitetasunaren lan onak aspertu baga egiñagaz.

Gorroto deutsuenakaitik erregutu egizue; parkatu egiozue, maitetu egizuez eu-

ren ona opa izanik; zeuen ondoizate eta ondasunai baño euren arimako salbaziñoari lenago begiretu bear deutzazue.

Aldi onetan nire artekoak ondo goralduten nabe; arrizku eta naazteketa onek izan ezbalira, etorri diran legez ezetozan nire besoetara beste itxaropen eta laguntasun guztiak alde batera itxita. Olantxe egin ditue bestelakuan egingo etzituen, eta egiteko erarik bere izango ezeben lan onik asko.

Uste betia euki egizue; maite zaituet. Orretarakoxe ezan neutsuen Ebanjelio Santuan, Aitak zuen ardura aundiya daukala. Basoko liriyoak ain apainduri ederragaz jantziten dituanak, eta egara dabil-tzan txoritxuai jaten emoten deutesen Aita aundiyak, ¿ez ete dau askozaz geiago egingo zueri bear dozuena emon eta zuen arerioen lakerioetatik gordetako?

Emon bada Jaungoikoari poztasun bat beragan uste betea imiñita, eta deitu Bere Maitetasun Errukitsuari.

Fedesko eta itxaropenesko egitadexo batek zeruan zeinbat balio daben, bizitza onetan ezingo dozue ondo aditu.

Ni zuekana etorri eta zuen artean aurkitu dodan abegi ona ikustea, alperreko gauzia ez da izan; zuen arimetan icharopena ezarteko izan da ta.

Ez bildurtu: zeuen erdiyan nago eta zeukandik alderik ez dot iñoiz egingo.

Alaitasun santua.—Estu-
raldietan indarra.

Sarritan ezan dot eta barrero diñot: barru indarrez (birtutez) egiten dan gauza txiki bat beste lan aundi gustiyan baño geiyagotzat daukat. Arimak fedean bizkor-tu eta donetu edo santu egiteko berarizko bideak daukadaz. Neuk alan itxi dodalako jaso diran gauzak igaro dirala ta, etzaiteze larregi atsekabetu; poztu zaiteze.

Zuen ardurea aonetantxe izan bedi: barru-indarresko (birtutezko) fedezco, itxa-ropenezko, biotz-beeratasunezko, maitetasunezko lanak egin eta neure ixil-erabagi-yak ontzat artu.

Geiyago dirautsuet; beste aldi baten Neure Apostoloai ezan neutsen legez: poztu eta alaitu zaiteze Neugan.

Badira uste dabena Ebangelioa ez dala oraingo denporetarako eta ango erakutziak aintziñako gizaldietarako bakarrik zirala onak.

Baña ez da ori egiya: Nik orduan Apostoloai emon neutsezan erakutziyak, aldi guztietarako, betirako dira. Sartu arimetan barruraño erakutzi orrek bakotzaren premiñai begiratuta. Aortxe dago arimazuzentzalleen izatea: bada euren alegiñak orretantxe izan biar dabe: arimak neure ezanetara jarten eta euren gogo ta egitadak neure erakutzien aldera iminten.

Orixe izango da, neuri eskua artu bagarik, neure aurrian ibiltea, neure borondatea gauza guztietan egiteko prest egonagaz eta nire doiak jakiñen gañera ondo artuten dozuela.

Jaungoikoaren doiakaz ondo baliyauzaiteze... zulatu eta lortu nire doiak; gogoratu ondo zelango egunetan gagozan eta atera-azo egiozuez doe ta mezedeak Nire Maitetasun Errukitsuari.

Gomuta onek ainbat fedezko ta itxaropenezko egitade eginazoko deutsue; zeinbat maitetasunezko eta biotz-beeratasunezko egintza; eurak izan ez balira, zeuen egikunak bere, ainbeste gizon donga eta gaitzkiñenakaz batera pekatu pilloa aundi-yagoa ta aztunagoa egiteko izango ziran.

Gomutauko dozue Sodoma ta Gomorra' ren aldiatan Abraham'eri ezan neutzana... Zeuk izan zaiteze ba zeruko asarrea bigunduteko eta usteldurik egozan uri atsitu arek salbetako naikua izango ziran amar gizon zuzen ta garbien lekua beteko dozuenak.

Gauza onek guztiok artuten dodaz nik arimak solitu ta euretatik frutu geiago aterateko.

Azko dira samintasunezko sugarren artian baño onduten ez diranak, eta Neuk egiten dot samintasun orrek etorri dakioezala, euren bidez Neuganatu daitezana.

Batsuk samintasun orrekaz otzitu ta ma-

kalduko dira, baña on-onak sendotu eta errimetu bere bai; otzitu ta aldenduten diranen ordez beste asko biotz beeratua-guak, asartasun geiyagokuak, euren añayaren indargarri edo abe sendoa izango diranak, ugari, etorriko dira.

Ez bildurtu; erregutu, erregutu egizue zeuen alde eta beste arima batsuen alde... Erregutzen etzaiteze aspertu; sinismen onagaz eta eskatuten dozuena lortuko dozuen uste osoagaz erregutu biar dozue; ori egiten badozue biotz-beeratazunagaz eta maitetasunez, euki egizue ziurtzat, eskatu dozuen guztia artuko dozuela, neure gloriarako eta zeuen arimen onerako bada beintzat. ¿Zer geiyago naiko dozue? ¿Ez alda orixe zuen gurari bakarra?

Zuen zurbiltasunak, geiyenian, zeuen biotzian larregi irantzita dagoen edo bearbearrekotzat daukazuen gauzaren batetik etorri oi dira; baña Nik nai neuke, bezte guztien gañetik Neugan imiñi dagizuela zeuen itxaropena, emen lurrean jazoten diranai begiratu baga.

Onak eztau nai ezan, besoak lotuta, gizonen erechi onak erakusten deuzkuzan alegiñak egin baga geratu bear dogula, ez; baña era onetan bere erregu asko egizue; erregu egin baga oinkada bat bere ez egizue emon, eta ordu orretan eta beti itxaropen guztiya jarri Neugan eta ez inguruan jasoten diran gertaeratan.

¿Neu ez alnaz itxaso eta ekatxen gañian aginpidia daukana, eta lurbira ta goi-beiak ez aldagoz neure inpian? ¿Ez etenaz Neu zeru-lurren Jabe, guztiok ezereztik egin zinduezana eta erridi (naziño) guztien gora-bera ta juan-etorriak zuzenduten dakidazana?

Zueri, bildurrez ta ikaraz zagozenori, beste era baten ezan nebana barristau bear déutsuet: *Sinismen gitxiko gizonak ¿zergaitik bildurtuten zare?* Sinistu egizue, Nire Maitetasun Errukitsuak, bere laguntasunen billa doanentzako alizate aundia daukala, eta erregutu egizue zeuen anayak zeruan egiten dituen arren eta eskariakaz batera.

Ez naz aspertuko ezaten: Zeuen itxaropena beste lurreko gauza guztietan baño lenago Neugan euki biar dozue. Era onetan dei egin bear da, bakotza bere bizibidean eta bere legeetatik urten baga, arimako bizimodua barrieztu deiten, barrua berotuagaz, erregu geiyago egiñagaz, norberen borondatea zapalduagaz.

Jaunari begira bizi diranai bere, dei egin biar deutzatzue, euren zeregiñakaz gañera, Moises'ek beste era baten menditontorrian legez, besoak zeruruntz jaso daiyezan, zelayan dagozenak euren pekatuen penitentziyia egiten daben artian: orixe izango da zuen garaitzaren oñik ziurrena,

Nik lurrera begiratu daidanean, aukitu daidazala bertan nire maitetasunak nai dituan arima zuzenak, biotz-beeratuta, aberaztasun baga, ezanekuak, ondo bezautta, errukior, neure ontasunen itxaropenian, errudun gizadiaren bitarteko egiñik, eta neure maitetasunez apainduta.

Opariya.—Esturaldien frutua (onurea).

Geitu ta geitu *Opari*'cn oneraspena: Zuen lurralde guzti orretan jaso deitela opari ori millaka biotzetatik, geratu baga. Orrixek dira zuen armak eta zuek gordeko zaituen estalki indartzua. ¡Zorionekua niri aditu ta nire erabagi errukitsuen laguntari jarten dana! Zuentzat esturaldi au neurribagako mezedia da. Arimak poz eta alegin geiyagogaz biurtuko dira Neugana; obeto ezagutuko dabe ezin leiyela imiñi euren uste betia Neugan bago.

Onak obeegoak egingo dira; zuen lan-on eta mezedien onurak artuta ardura baga lo egiten ebenak, iratzartuko ditut.

Salbaziñoa ¿norgandik etorri ete leikezue zeuen Salbatzalleagandik baño? Maitetasun Errukitsuari dei egiteko, bat-egin bear dozue. Batasun ori eskatu egizue biotzez, Mariyaren eta neure Teresatxo'ren bitartez, beste ezer baño lenago, zeuen barruan daroezuen ustelkeria... buruere-

txitazuna... askatasun-egarri eta lurreko gozakeri gurarien garailari izan zaitezten.

Esturaldiak biotz-beeratasuna oi dakar: Nire ondoan zeuen ezereztasuna, indargetasuna eta ezjakintasuna ezagutuazoten deutsue, eta arimako ezta aberaztasun txikiya, norberen indargetasuna ezagutu ta Jaungoikoaren eskuetan jartea.

Esturaldiak biotzak zerurano jaso oi dute, eta Neugana eldu bearra, ta Neure borondatea zer dan jakiteko premiñea argiroago azaltzen ditu, eta orrela nire eskuetan jarteori izatez-gañetiyagoa, sari-duitñagoa eta osoago izango da.

Nire bayagaz elduten diran esturaldiyak erakusten deutsue zeuen nayak oinperatuta guztien gañetik neure borondate Santua egiten; zeuen buruan aukerari baño guztien onari obeto begiratzen; ingurokoai laguntzearren zeunak itxiten, eta bildurrez eta negarrez dogozenai pozgarri izaten. Orretarako indarra neugandik, indar guztien iturritik, artuko dozue, eta Sacramentu Santuen premiñea obeto ezagutu bere bai.

Egiaz dirautsuet: ainbesteko ezbear orrek, zuen arimetakako mezedegarriak dira. Leyal jarraitzen badeustazue eta neuk nai dodana, ta zuekandik itxaroten dodana egiten badozue, naikoa da.

Ainbeste gora-bera ta eztabaidako aldi onetan gauza bakar batek bildurtu bear

zaitue, ta ez zeuen arerioen asmu ta alizateak zeuen buru-zaletasun edo ingurukoen ardurarik ezak: orrixek galerazoko leuzkizue zuek neure alde eta zeuen sorterriyaren alde egin bear zendukeena.

Zueri, neure abade, praille ta monjai, neure maiteenoi, neuretzako arturik zaukaze-noi, zueri emoten deitsuet ordu onetan zeuen sorterrria onez gordetako ardurea.

Nire zoriona iñori on egitean dago; baña nai dot eskatu daidazuela: erdue ta agertu zaitez, nai dodan legez, neure aurrean; barriztau, aspertu baga, Opariya... baña batez bere zeuen egitade onen opari edo eskintzariya, orixe dalako niretzako niretzako lanik aundiena.

Erakutsi egiozue arimai, euren egikera guztietan neugana etorten; olantxe Neuk adorez bete daidazan; Neure antzekoak euren egitadeetan izan daitez.

¡Onetarikoen lan-onak, bete-beteak izango dira naizda agirian gauza aundirik agertu ez!

Praille ta Monjai ezan egiozu, Nik eskatuten deitsedan mingarri edo mortifikaziñorik onena, euren zuzenbide ta legeak; ixiltasuna, menpetasuna, maitetasuna, ezeukitasuna... eta beste guztiak ondo betetea dala.

Lege orren aldakuntza billa ez deitezela ibilli, aginpidea daukenari oben egitearren ez bada.

Au egiten badozue, ta beste batzuri orretan lagunduten badeutzezue, gauza aundia egingo dozue, ta orrez hañera, ari-mak ondo erantzuten badabe, aor nun dagozan nire asmoak beteta.

**Jaungoikoaren uste ona,
Jesusek ez gaitu bakarrik
itxiko.**

¡Zoli egon, erregutu, uste ona euki...!
Neugan imiñi egizue uste guztiya, ete Neugan bakarrik. Nik bakotxari premiñea daukan eran eta ordu aretan bear daben neurriyan laguntzen dakit.

Badatorrela uste dozuen ezbear bati arpegi emoteko indar gitxi daukazuela ta, ez bildurtu.

Auzitegietaara agertu bearra elduko baltz bere, ezanik dago, zer erantzungo dozuen ardurarik ez izateko; Espiritu Santuari eskatu eskero, berak iminiko dituzuen espanetan ezan bearako diran berba guztiak.

Olantxe da gauza guztietan. Nire borondatea une guztietan, zuzen egiten badozue, Neu egongo naz zeuekaz eta ezaituet bakarrik itxiko.

Antxinan ezan neban: «Egun bakotxak asko dau bere nekia», eta barrero bere orixe dirautsuet. ¡Ez ikaratu ezergaitik bere! ¡Etzaiteze artegatu!!

Orixe da nire ezanetan sinistutea, eta berori da garaitza bat. Orretaraxe goralduko nozue Ni.

Neure bakea, neure postazuna, neure maitetasuna eta neuganako uste betea zeuekan dozuez. ¡Neugandik beti ikasi! ¡Neugan sinistu! ¡¡Iñoiz bere etzaituet bakarrik itxiko!!

P. M. SULAMITIS.

Eleiza'ren eta Sorterriaren alde erregutu daigun

AITA GURIA.—AGUR MARIA.—GLORIA.

OPARIYA. — *Aita Jaungoiko santua; Mariyaren biotz garbiaren bitartez, opatuten deitsut Jesus, zeure Seme guztiz maitea, eta Beragan, Beragaz eta Beragaitik, neu bere opatuten nayatsu aren gogo guztietarako eta gizadi guztiaren ixenean.*

Jauna, errukitu zaite gugaz.

Jesucristo, errukitu zaite gugaz.

Jauna, errukitu zaite gugaz.

«*Aitak, nire ixenian eskatuko deutzazuen guztiya emongo deitsue*», ezan zendun Jauna: Zeure ixenian eskatzen deitsagu Aita orreri, lotu bagekatu daiyala Eleizea, geu santu egiteko eta besteen arimak salbetako lan egitea al izan daigun. Amen.

«*Eskatu egizue ta artuko dozue, billatu egizue ta aurkituko dozue, deitu egizue ta edegiko deitsue*», ezan zendun Jauna: Españaren etorkizunak euren eskuan daukazenari zeure Jaungoikozko argiyagaz argi egin dayezula eskatutera gayator-tzuz; zeure maitetasuna geure egitade onakaz batian lortu nai dogu; zure Maitetasun Errukitsuaren ateetan dei egiten dogu, gure arimakaz, gure echekoakaz eta gure Sorterriagaz errukitu daiten. Amen.

«*Zeru-lurrak aldatuko dira, nize ezanak ez dira aldatuko*», ezan zendun Jauna: Zeure gusti-

altazun orregaz egizu Españan iraun eta geitu daitela Erlejiño santua; eleizgizon, pralle ta monjen jarraipide loturagabea, geure erriaren bakea, eta bere agintarien zuzentazuna; zeure goratasuneko eta geure arimen onerako izango bada. Amen.

Andre Mariyari erregua.

Gomutau zaitte Mariya Birjiñ errukiorra, ez dala iñoiz entzun suk deslai itxi dozula zure magalpera juan, zuri deitu ta zure laguntasuna eskatu dabenik. Uste orregaz pozturik nayatortsu, Birjina, ta Birjiña gustien Ama, eta neure utsegi-teen astuntasunagaz nekaturik, zotinka ta ikaraz auzpaztuten naz zeure aunditasunen aurrean.

Jaungoikoaren Semearen Ama, erregu oneri ezeyozu ez-entzinik egin; abegi onagaz entzun egizuz eta artu erruki guztiogaz. Alan izan dedilla.

Pekatarien gorde-lekua: erregutu egizu gure alde.

(Erderazkotik artuta dago.)

NIHIL OBSTAT

FR. IGNATIUS G. MENÉNDEZ-REIGADA.

Censor.

NIHIL OBSTAT

Victoriae, die 4 Decembris anni 1931.


EMMANUEL DE LECUONA


IMPRIMATUR

Victoriae, die 5 decembris 1931.

DR. JUSTUS DE ECHEGUREN

Vicarius Generalis





Publicaciones del Amor Misericordioso

FOLLETOS

El mes del Rey de amor (en tela 1,60)	1 00	ptas.	
Catecismo de los parvulitos (en tela 1 pta.	0 70	—	
Centellitas.	0 40	—	
A las almas cristianas que están en el mundo y no son del mundo	0 15	—	
A las almas contemplativas, 0,25 y a.	0 30	—	
El Amor no es amado, a 0,25 y a	0 30	—	
La Obra del Amor Misericordioso	0 25	—	
La fiesta de la Realeza	0 25	—	
Cristo Rey	0 25	—	
Señor, ¿qué queréis que haga?	0 10	—	
A los Sacerdotes (edic. apar. de la Revista).	0 35	—	
3.ª edición a 0,75 en rústica y 1,20 en tela.			
Las responsabilidades de la fortuna. 2.ª ed.	0 30	—	
En seguimiento de María	0 15	—	
Dones y frutos del Espíritu Santo.	0 50	—	
Acto de ofrenda al Amor Misericordioso	0 40	—	
Semana preparatoria al acto de ofrenda al Amor Mise- ricordioso	0 30	—	
La imagen de Jesucristo Amor Misericordioso.	0 35	—	
La obediencia cristiana.	0 25	—	
Aridez y hastío.	0 15	—	
La gloria de Dios.	0 35	—	
La imagen de Jesucristo Amor Misericordioso y el arte	0 35	—	
A LOS CATÓLICOS ESPAÑOLES (el ciento 7 ptas)	0 10	—	

HOJITAS

A las madres	el ciento.	2 50	—
Grave llamamiento a las jóvenes	—	2 50	—
María y los jóvenes.	—	2 50	—
Sed buenos.	—	2 50	—
Dad gloria a Dios.	—	3 00	—
Llamamiento a los amigos de Jesús	—	3 00	—
El Tesoro escondido (en papel couché, 3)	—	2 00	—
La divina Realidad	—	2 50	—
Rica ofrenda	—	4 00	—
El día con Jesús	—	2 00	—
La semana con Jesús	—	2 50	—
Misterio de amor de la S. Comunión	—	2 00	—
<i>Cristo Rey Universal: Consagración</i>	—	3 00	—
Novena a San Miguel.	—	2 00	—
<i>Exorcismos con oración a San Miguel</i>	—	2 00	—

La Práctica por excelencia de la caridad:			
La Reparación	el ciento	3 00	ptas.
«Fiat»	—	1 00	—
Consagración al Amor Misericordioso	—	1 00	—
La Comunión	—	2 00	—
Novena perpetua del Amor Misericordioso	—	3 00	—
Las intenciones de Jesús	—	2 00	—
Jesús es nuestro tesoro	—	2 00	—
Jesús está con nosotros	—	2 00	—
A las almas probadas	—	2 00	—

ESTAMPAS

Imagen del Amor Misericordioso (couché)	—	3 00	—
La misma (cuadro de Atocha) en huecogra-			
grabado	—	4 00	—
» » » en blanco	—	3 50	—
» (cuadro del Papa) »	—	3 50	—
Tamaño 24 por 35 mm. a peseta una y	—	75 00	—
Tamaño 18 por 26 a 0'50 una y	—	40 00	—
Imagen de María Mediadora (couché)	—	2 00	—
La misma en huecograbado en blanco	—	3 50	—
Con texto	—	4 00	—
Don de Dios (estampa doble)	—	3 00	—
Novena al Amor Misericordioso, por inter-			
cesión del P. Arintero (estampa doble			
en huecograbado)	—	8 00	—
Fotografía del Amor Misericordioso, tamaño			
13 por 18 mm., una a 0,75.			
Para fotografías mayores, pídase presupuesto.			
MEDALLAS.—Las hay de 0,25, 0,30, 1 pta. y 3,50 ptas.			

LA VIDA SOBRENATURAL

REVISTA MENSUAL FUNDADA EN 1921 POR EL

M. R. P. Mtro. Fr. Juan G. Arintero, O. P.

DIRECCIÓN Y ADMINISTRACIÓN: EDITORIAL FIDES.—APARTADO
17.—SALAMANCA.

PRECIO DE SUSCRIPCIÓN

ESPAÑA		EXTRANJERO	
Un año.	ptas. 6,00	Un año.	ptas. 8,00
Un semestre	— 3,50	Un semestre.	» 4,50

PAGO ADELANTADO